

www.noaia.com Noaia !!



Bi eski irteera
egingo dira martxoan



Katalunian erabiltzen diren
konpost makinak Gipuzkoan egiten dira

Urbil baino hurbilago

eguneko esnea Kalitatezkoa



0,85 €

bertakoa

aginagako **Iarbe**
baserrikoa

**ERRAUSKETARIK EZ
LURRA BASERRIA HERRIA
BIZIRIK**

Alkartasuna Elkarte
Baserritar Kooperatiba
alkartasuna@usurbil.com
Ugarte industrialdea 12
943 361 114



martxoak 8, larunbata
20:00 SUTESI KULTUR ETXeko AUDITORIAN

SARREKAK ALDEZ AURRETIK EROSITA 10€ (TXIRRISTAN eta
NOAUAIKO egoitzan SALDAI). EGUNEAN BERBAN 12€.
NOAUAIKO bazkideek bertan erosi ahal izango dute
NOAUAIKO egoitzan ALDEZ AURRETIK.

Noaua!

entolotzailea:

www.noaua.com



laguntzailea

T a p a k e t a a u r k i b i d e a k p r e s t



Agur esan diogu 2007 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2007ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok, azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

Albiste iruditan !!

Martxoaren 8an, bertso-afaria Andatzpe elkarte

Emakumearen egunean, Maialen Lujanbio, Nerea Elustondo eta Jexux Mari Irazu bertsolariak Andatzpe elkarte arituko dira kantuan. Gai-jar-tzailea Joxemari Izeta izango da.

Gaeko 21:30ean hasiko da bertso-afaria. Menua, hauxe: urdaiazpikoa, langostinoak eta baserriko oilaskoa letxua-rekin. Postrea ere izango da.

Txartelak, 20 eurotan, Txiribogan eta Txirristran jarriko dira salgai. Martxoaren 2an bukatuko da txartelak eskuratzeko epea.

Usurbilgo Udaletxeko Ongizatea, Emakumea eta Gizarte Politika Sailak antolatu du bertso-afari hau.



MAIALEN LUJANBIO IZANGO DA BERTSOLARIETAKO BAT. SARRERAK EROSTeko AZKEN EGUNA: MARTXOAK 2.

Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaerri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurerako ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publikitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieto, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

GREBA DEIALDIAK JARRAIPEN HANDIA **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN **6. OR.**

SAN MARKOS ZABORTEGIA, AZKENETAN **9. OR.**

KONPOST MAKINAK IRUNGOAK DIRA **10. OR.**

DVDA, DATORREN ASTEAN SALGAI **12. OR.**

ANDOINGO PIANO JAIALDIA **13. OR.**

BI ESKI IRTEERA EZBERDIN MARTXOAN **15. OR.**




Usurbilgo Udaia



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



AITOR LANDALUZE

Made in Usurbil

Oriatik bera ala batean Martintxo dioa aitari laguntzen, Saikolako ontziolara hango langileek sagardoa edan dezaten kupela handi bat daramate. Ikaragarri gustokoa du Martintxok Saikolako ontziola, edozein etxea baino handiagoak diren egurrezko ontziak egiten ikustea zirraragarria egiten zaio. Iritsi dira aitak alatik kupela ateratzen duen bitartean, Martintxo bertako langileak begiratzen ditu bakoitzaren egin beharra asmatu naihian.

Etterako buelta oinez egiten dute, erriberatik, Martintxok galderak besterik ez ditu zortzi urteko buru txiki horren barruan “- Aita, zeinek egiten ditu holako ontzi erraldoiak?

-Armadoreek. Erantzun dio, jakinaren gainean da erantzun honek ez duela umea asetuko eta hurrengo itaunen zain gelditu da. -Eta armadoreek egur guzti horiek josten dituzte? -Ez motel hori arotzek eta egiten dute, aurrena aizkolariak Irisasiko basoetan moztu, ondoren beste batzuk idiez eta hona garraiatzen dituzte, ondoren arotzek bertan landu eta josi egiten dituzte.

-Ah, eta sokak ere arotzek egiten dituzte?- Ez sokagileek, aldeztu aurretik soroetan hazitako kalamua landu eta ondoren hariak atera eta hauek josiz egiten dituzte gero hona ekarri eta itsasontzian jarri.

-Eta hiltzeak? Horiek burnioletan, burdin mea landu ondoren sortzen dira, hiltzeak eta itsasontziek beharrezkoa dituzten burnizko gauza guztiekin batera.

-Aingurak ere? Bueno horiek lantegi berezia behar dute eta horiek Gilisagastiko olan egiten dira.

- Itsasontziak nora joaten dira gero? - Nik dakidala leku guztietara, Ameriketako itsasoetara, Karibera... Edota Afrikara, entzun dudanez afrikarrak beltz beltzak dira, edota Japoniara, han dirudieneguz begi txikiak dituzte... Mundu osora joaten dira, urteak pasa ditzakete itsaso bate-tik bestera eginez. Bestetik bertan Gaztelako itsasarmadarako kanoiez jositako gudaontziak egiten dira ere, piratak harrapatzeko zein Ingalaterra edota Frantziako ontziekin borrokatzeko...

Haurra harrirituta gelditu da, zirrara berezi bat sortzen dio bere herri txiki eta umilean horrelako tramankulu handiak egiteak, munduko itsaso mugagabeak zeharkatuko dituen, jende erabat desberdina ikusiko du, leku irudikaezinak, itsaspizti erraldoiak, itsasguda krudel, piratak, esklabu,....

- Gure sagardoak ere beraz, laguntzen du ontziak egiten ezta?

- Bai seme guregatik ez balitz ez litzateke bertatik itsasontzirik aterako!

Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Joxe Piñas - Unai Agirre

Ika-mika !!

Egunkaria libre!

Otsailaren 20an 5 urte beteko dira euskal kulturaren bilgune nagusia zen eta den Euskaldunon Egunkaria itxi zutenetik. Egunkariaren aurkako erasoak eduki propioa zuen, euskararen aldeko eta kulturgintzaren topagune sozialerako ereduaren aurka zuzenean jotzen zuelako.

Euskarazko egunkariaren sorreran eta ondorengo ibilbidean ardura lanetan edo administrazio arloan aritzeagatik espetze zigor luzeak eskatu

dituzte hamabi auzipetuen aurka. Orotara, 279 urteko espetze zigorra eta 235 milloi euroko isunak.

Eta orain 5 urte egin bezala, orain ere Euskal Herriak erantzun beharra du. Epaiaketaren aurrean perspektiba propioaz aritzea da funtsezkoena. Ez gaitetzen mugatu auziperatuekiko elkartasuna adierazi eta epaiaketaren salaketa egitera. Bilaka dezagun epai-keta euskarazko komunikabideen aldeko indar soziala berrindartzeko aukera. Euskarazko komunikabideak

Aurrera!

Itxierari egunkari berri eta hobea eginez eman genion erantzunik sendo-ena. Epaiaketari, euskarazko komunikabideen aldeko urrats berri baten bidez egingo diogu aurre, Egunkaria sortu eta birsortu zuen indar euskaltzale zabal horrekin bat eginez. Euskarak komunikabideen alorrean dituen erronka nagusiei begira, aurrera!

Usurbilgo Euskaldunon
Egunkariako langile ohiak

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: Otsailak 29. Idatzia ekartzeko azken eguna: otsailak 25.

EAE-ANVren suspentsioa salatzen duen mozioa onartu zen udalbatza plenoan

Martxoaren 13an asteazkena, ezohiko eta premiazko pleno saioa egin zen udaletxean. EAE-ANVren suspentsioa salatzeko eta otsailaren 14rako deituta zegoen greba egunarekin bat egiteko mozioa aurkeztu zuen udal gobernu taldeak. Pleno aretoa herriarrez bete zen.

Lehenengo astean onartu zen mozioan, oso larritzat jotzen da EAE-ANV hiru urtez suspentsioan utzi duen erabakia. Gatazka politikoari ateak itxeararekin batera, euskal herritarren eskubideen aurkako neurrien testuinguruan kokatzen dute suspentsioa, kriminalizazio prozesu baten barruan. Gauzak horrela, herritarrak aukeratutako udal ordezkarien eskubideak babestu, Udalean eta beste erakundeetan parte hartzeko eskubidea ziurtatu eta ordezkarien karguak bermatuta egotea aldarrikatzen da aipatu mozioan.



EAE-ANVREN SUSPENTSIOA SALATU ETA OTSAILAREN 14RAKO DEITUTA ZEGOEN GREBA EGUNAREKIN BAT EGITEN ZUEN ONARTUTAKO MOZIOAK.

EAE-ANVk alde bozkatu zuen. EA, EAJ-PNV eta PSE-EEko zinegotziek aurkako botoa eman zuten. Aralar, aldiz, abstenitu egin zen.

Pleno aretoa herriarrez bete zen. "Independentzia aurrera" zioten pankartekin, gertatzen ari zena salatu nahi izan zuten.

Jarraipen handia izan zuen greba egunak

Jarraipen handia izan zuen otsailaren 14rako deitua izan zen greba deialdiak. Saltokietan erabatekoa izan zen. Lantegietan, langile askok egin zuten greba baina hainbat lantegitan greba ez zen erabatekoa izan. Usurbilgo Ezker Abertzaleak aditzera eman duenez, "aurrekoetan baina askoz zabalagoa izan da greba eguna".

Herriko saltoki eta tabernetan greba erabatekoa izan zen. Urbil, ordea, irekita izan zen. Saltoki honetan, ezezagunak propaganda banatzen ari zirenean Ertzantza bertaratu eta hainbat tirabira izan ziren. Baina ez zen atxilotarik izan.

Kiroldegia, Udaletxea, Udarregi

ikastola eta Haur Eskola ere itxi egin ziren. Eguneko Zentroa eta anbulatorioa, aldiz, irekita egon ziren.

Industriari dagokionez, asko izan ziren greba egin zuten langileak, "Euskal Herriaren eskubideen alde, salbuespen egoera stop!" lelopean antolatutako protesta egunean. Baina hainbat lantokik lanean jarraitu zuten, Ingemarren adibidez. Ez zen lan egin zuen enpresa bakarra izan. Ezker Abertzaleak prentsa ohar bidez jakinarazi duenez, ordea, "grebaren eragina aurreko deialdietan baino askoz handiagoa izan dela garbi ikusi da. Lantegi batzuk zabalik izan ziren baina lantegi horietan zenbait langilek greba egin zuten". Greba, bereziki, eraikuntza sektorean nabarmendu zen.



EGUERDIKO MANIFESTAZIOAN 350 HERRITAR ELKARTU ZIREN.

Eguerdiko 12:00etan manifestazioa egin zen. 350 herritar atera ziren kalera. Arratsaldeko 18:00etan, auto karabana egin zen herrian zehar eta gaueko 20:00etan beste manifestazio bat egin zen. Azken manifestazioan 150 herritar bildu ziren.

TXOKOALDE

ALOÑA LOIDI

Gauza batzuk argitu nahian



Lehenik eta behin barkamena eskatu nahi diet NOAUA!ko 299. alean idatzi nuen kronikak mindu dituen guztiei, zeren, Irisasi Zentro Terapeutikoko hezitzaile taldeak NOAUA!ko 307. alean emandako erantzunaren arabera bi hankasartze nagusi egin nituen nik idatzitako kronikan.

Idatzi hori dela eta gaizkiulerturik gera ez dadin, argi utzi nahi dut auzotarrok ez gaudela Irisasi Zentro Terapeutikoaren aurka eta bertako hezitzaile taldeak lan txalogarria egiten duenaren inongo zalantzarik ez dugu.

Irisasiren erantzunean garbi adierazten den bezala “guztiok dakigu norbere etxe ondoan harrera zentro bat irekitzea ez dela inoren gustukoa izaten” eta horri helduz, zentroa ireki baino lehen norbaitek zentroari buruzko informazioa eman behar zigulakoan gaude; zein motatako gazteak jasoko ziren bertan, arazoren bat izanez gero nora jo behar den, gaztetxoren bat diru eske etorri gero zer erantzun behar zaion... Mota honetako zentroak irekitzen direnean inguruko jendeak izaten dituen arazo edo kezken berri izanda, zergatik zentroa ireki

aurretik ez zen inor (Eusko Jaurlaritza, Udala...?) jarri auzotarrok harremanetan? Nire ustez auzotarrok informazio bila Irisasi zentrorra joatea ez da planteamendu zuzena, alderantzizkoa baizik. Arazoak sortzen dituen eta sortu ditzakeela uste duena da informazioa eman behar duena.

Nik gai honi buruz idatzi nuen lehen artikulua helburua NOAUA!ko irakurleei auzoan gertatzen ari zenaren berri ematea zen, gazte hauek sortzen ari zitzaizkigun arazoa usurbildarrek jakin zitzaten. Nire helburua ez da inola ere Irisasi zentroaren aurka jardutea eta gutxiago oraindik bertako hezitzaile taldearen aurka. Nik ez dut inor salatu nahi eta ezta erruduntzat jo ere.

Auzotarrok ez diogu ezezagunari beldur eta gure beldurra ez da aurreiritziek sortutakoa, gazte hauek auzotarrokiko duten portaerak sortutakoa baizik eta hori azaltzeko bi gertaera kontatu nituen adibide modura lehen kronikan eta idazten jarraituz gero gertaera gehiago ere azalduko nituzke. Beldur hau sentitzearen arrazoia ez da auzotarrok informazio bila joan ez izanaren ondorioa, gazte hauek beren presentziarekin eta bihurrikierekin auzotarron erosotasuna eta lasaitasuna apurtu izana baizik.

ATXEGALDE

M^AJESUS URBIETA

Natura eta mimosak loretan



Otsailean murgilduta egon arren, udaberriko eguraldia dirudi. Jendea pozik ikusten da eta diosalean ere horrela esaten dugu “eguraldi ederra”, “aspaldi honetan horrelakoak ditugu”... Dena den, denak ederki dakigu ez dela garaiari dagokiona baina, momentuan gustora hartzen dugu eta tira...

Horren guztiaren ondorioa ordea ederki ikus genezake azken egun hauetan. Zuhaitz guztiak loretan ditugu, tartean mimosa eta mendira joatean edo inguruan bueltaxo bat ematea nahikoa da zer edertasun dugun ikusteko. Ez dakigu klima aldaketaren kontuak diren edo ez baina, azken hilabete honetan behintzat eguraldi ederraz gozatzeko aukera izan dugu. Dena den, inork ezin aukeratu eta etortzen dena hartu behar.

Bestalde, dagoeneko garizuman gara. Aurten gabonetako kanpaien ondoren bat bestearen atzetik etorri zaizkigu, San Sebastian, Inauteriak, Santa Ageda. Orain garizumaren garaia da eta ondoren San Joserekin batera Aste Santua. Aurtengoan inoiz baino goizago hau ere.

Auzoan berriz, eraikin berriak direla eta atzera aurrera haundiak nabaritzen ditugu. Gruak, kamioiak eta konturatzeko solairu bat gehiago. Azkenik esan eraikuntzan ere pasa den asteke greba nabaria izan zela.

KALEBERRI

ANA URDANGARIN

Usurbili buruzko historia

Aintzina gertaturikoak eguneratzea oso interesgarria da denontzat, nondik sortuak garen erreparatzeak ez digu kalterik egiten, alderantziz aberastu egiten du bat. Pasarte, istorio eta hainbat gora behera eguneratzea lortu dute orainoan ere Nafartarrek, ostiralean sekulako dvd polita erakutsi baitzuten Sutegin eta nola ez gure herria ehunka urtez atzera eraman. Herriko toki eta etxe historikoei errepasoa emateaz gain jendearen argazki zaharrak erakutsi zituzten. Sekulako barreak egin nituen herriko jendea orain dela urte batzuk herriko jaietan, ikastolako ekitaldietan eta hainbat unetan ikusteak, ez zitzaidan erraza egin alajaina nor ziren tankera emateak nahiz eta batzuen aurpegia nabarmen nabarmena izan.

Jende aldetik ere oso arrakastatsua izan zen eta denok oso gustora atera ginen bertatik. Sekulako lana egin dutela nabaria da eta hemendik nire tartetxotik eskerrak eman nahi nieke sortzaileei horren lan txukun eta dotorea egiteagatik. Bejondeizuela ba!!

Eskerrik asko beraz eta jarrai dezagun honelakoak sortzen. Ondo ondo segi eta hurrengora arte.



AGINAGA

AEINE MANZISIDOR

Hasi gara festak antolatzen



Kaixo guztioi! Berriz ere hemen naiz Aginaga aldeko berri emateko prest. Hiruzpalau konturekin nator gaurkoan.

Martxoan Gorte Nagusietarako hauteskundeak ospatuko ditugu eta aginagarrek lehenengo aldiz, herrian bertan bozkatzeko aukera izango dugu. Orain arte, Usurbila joan beharra izaten bagenuen ere, aurten etxetik bi pausotara izango dugu aukera hori.

Gaiaz erabat aldatuz, urrian urtero bezala San Praixku jaiak ospatuko ditugu eta dagoeneko hasiak gara hauen antolakuntzarekin. Ostegunero

elkartzen gara gaueko 21:00etan Apaiz Etxean. Guztion artean herriko festa aberats batzuk ea sortzen ditugun.

Azkenik, 2007ko San Praixkuetan argitaratutako "Herriotik Itsasora" liburua, aurrerantzean Usurbilgo Alkartasuna Kooperatiban (Sindikatuan) izango da eskuragai.

Amaitzeko, apirilaren 5ean Aginagako eliza zaharrean kontzertu bat antolatzen gabilta. Bertan, Anestesia talde zarauztarraren kontzertuaz gozatzeko aukera izango dugu, beste bi talderekin batera. Kontzertu hau sarrerarekin izango da. Kontzertu honen xehetasunak aurreaxeago izango dituzue.



KALEZAR

ALOÑA PULIDO

Euskal Herria triste



Ondo pasa al dituzue ihauteriak? Usurbilen egia esan festa giro polita egon zen ihauterietako larunbatean, zomorru ugari ikusi nituen.

Ihauteriak pasa dira eta festa alaia izaten da, baina aldi berean euskaldunok oso momentu tristeetan aurkitzen garela uste dut, izan ere Euskal Herria bera oso momentu tristea bizitzen ari baita. Zer ari da gertatzen? Iada komunikabideetan Euskal Herriaren alde mozorrotu gabe ageri dena kartzelara doa, eta ez hori bakarrik euskal herritarra izateagatik eta gure herriarengatik zerbait egiteagatik ere kartzelara doa. Zein demokraziatan bizi gara? Euskaldunak monigote batzuk besterik ez gara eta Madrilen nahi dutena egiten ari dira gurekin. Ez al da bidegabea? Eta noren esku dago Euskal Herriaren etorkizuna? Gure esku ez dute utzi nahi behintzat, hori argi dago!

Bestalde Aitzagaren kontua datorkit burura. Iada orain, otsailean (eguna ez dut gogoratzen), bi urte egin dira Aitzaga itxi zela eta berez bi urtetarako itxi zutela esan zuten, baina ireki al dute eta irekiko al dute? Kasu honetan ere ez dago eskubiderik egiten dutena egiteko. Oraindik gogoan dut gainera zein handikerirekin agertu ziren gure herrira gure herriko taberna ixtera, nortzuk direla uste dute! Ez dago eskubiderik! Ea behingoz beraien hitza betetzeko gai diren eta bi urteren ostean Aitzaga irekita ikus dezakegun!

ZUBIETA

DENIS ELORTZA

Injustizibiet

Ideien ilegalizazioaren kontrako pasa den asteke greba deialdiaren aurrean denetarik iritziak entzun nituen inguruan: batzuek "bateratua behar zuen, bananduta ez goaz inora", besteek "injustizia da, manifa egiten ere ez digute uzten eta nolabait protestatu behar da"... Batzuek lan egin zuten, besteek greba, eskola txikia zabalik, tabernak itxita...



Denetarik. Baina greba egin edo ez, oraingoan bazen herrian sentiberatasun berezia. Izan ere, oraingoan oso gertu kolpatu gaituzte; 18/98arekin aski ez eta orain EHAKren eta EAE-ANVren ilegalizazioekin beste hainbat hautetsi zubietar jomugan. Gertuko kolpeak are mingarriagoak dira eta hori nabaritu egin zen Zubietan.

Marka da gero gure herri hau, txikia izanagatik ere, jasaten ari den eraso eta injustizia kopurua. Donostiarrentzako estrategikoa omen da, bai, baina soilik kontu batzuetarako: euren kaka guztia (errautegia, kartzela, kuartela...) kanporatzeko, leku eder-rra Zubietan; hori bai, eta azkeneko adibidea jartzera noa, "Donostiarako mugigarritasun iraunkorreko 2008-2024 plan" superponpoxoan "Zubietan" hitza azaldu ere ez da egiten eta Donostiako auzoen mapak Añorgan bukatzen dira...

Martxa honetan herriari izena ere aldatu beharko diogu. Ea bada behintzat larunbateko sagardotegiko afarian Andonik eta Ametsek irribarra aterazten dituzten.

Babarruna ekoiztu nahi duenarentzat ikastaroa antolatu du Tolosako Babarrun Elkarteak

Itsasmendikoi Fraisorok,
Tolosako Babarruna
Elkartearekin batera, Tolosako
Babarrunaren landaketari buruzko
ikastaroa antolatu dute. Interesa duen
edonori zuzendua, martxoko lehen
hamabostaldian lau hitzaldi izango
dira. Izen ematea zabalik dago.

Babarruna ekoizteari buruzko oinarri-
rizko ikasgaiak jaso eta Tolosako
Babarruna Elkartearen funtzionamen-
dua ezagutzea. Horiek dira Fraisorok
eta Tolosako Babarruna Elkarteak,
batera, martxoko lehen hamabostaldi-
rako antolatu duten ikastaroko helbu-
ruak.

Gaiaz zerbait gehiago jakin nahi
duen edonork parte har badezake ere,
are interesgarriagoa egingo zaie alter-
natiba bila edota babarruna landatzen
hasi nahi dutenei.

Hizlarien artean, aipagarria Juan
Jose Ferreira asturiarraren hitzaldia.
Arloan urte luzez egindako lana tarte-



BABARRUN LANDAKETARI BURUZKO IKASTAROAN IZENA EMATEKO EPEA
ZABALIK DAGO. MARTXOKO LEHEN BI ASTEETAN ESKAINIKO DA IKASTAROA.

ko, esperientzia handia du.

Lau hitzaldiko ikastaroa

Aipatu bezala, martxoko lehen
hamabostaldian izango da ikastaroa.
Guztira lau hitzaldiz osatua, saioak
martxoaren 3an, 4an, 12an eta 13an

izango dira. Arratsaldez, 15:30-18:30
artean eskainiko dira, Zizurkilen
kokatuta dagoen Fraisoro nekazaritza
eskolako areto nagusian. Informazioa
eskuratu edota ikastaroan izena eman
nahi duenak, Fraisorora deitu besterik
ez du; 943 692 166. Prezioa: 6 euro.

Larunbat honetan, sagastien landaketari buruzko ikastaroa

Usurbilgo Alkartasuna
Baserritarren Kooperatiba
Elkarteak 100 urte betetzen ditu aurt-
ten. Urteurrena gogora ekarriz, hainbat
ekitaldi jarri dituzte martxan: hitzal-
diak, ikastaroak eta baita jaialdi eder
bat ere. Alkartasunatik jakinarazi digu-
tenez, ikastaro eta hitzaldi guztiak doan
izango dira. Lehenengo hitzaldi-ikasta-
roa sagastien landaketari buruzkoa
izango da.

Landaketa ikastaro honetan,
“Barietateak eta txertaketa” izeneko
hitzaldia eskainiko da lehen lehenik.
Ondoren, neguko kimaketa ikastaro
praktikoa egingo da, inguruko sagasti
batean.

Hitzaldia larunbat honetan izango
da, hilak 23, goizeko 9:30etik aurrera
Usurbilgo Sutegi kultur aretoan. Aitor
Etxeandiak eskainiko du Alkartasunak
antolatu duen hitzaldia.



AITOR ETXEANDIA ADITUAK
ESKAINIKO DU IKASTARO HAU.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

txirriStra

KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
piater konbinatuak

TABERNA

San Markos ixteko, hondakinen arazoa konpontzea beharrezkotzat jotzen dute hautetsi independentistek

Zabortegiaren itxiera, partzuergo edota hitzarmenekin ez, hondakinen arazoa-ri irtenbidea bilatzearekin lotua dago; zaborraren zati organikoa bereizita biltzeko konpromisoarekin. Hala jakinarazi zuten pasa den otsailaren 15ean Usurbil, Lasarte-Oria, Pasaia, Lezo eta Oiartzungo hautetsi independentista taldeak, San Markosko zabortegean bertan eskaini zuen prentsaurrekoan.

Urtarrila hasieran, San Markosko Mankomunitatetik Herrialde Katalanetara antolatutako bidaiari jarri zuten horren guztiaren erakusgarri. Zaborraren zati organikoa bereizita bilduta, zabortegea doan hondakin kopurua %80tik %20-25era murriztu daiteke urtebeteko tartean. Hain zuzen, zabortegea arazo-iturria, zati organikoa dela gogorazi zuten.

HAUTETSI INDEPENDENTISTAK

Alternatibetan sinistu eta bitartekoak jartzeko borondate politikoa falta dela uste dute

Horregatik, aipatu diren partzuergo edo hitzarmenen beharra, erraustegia ezinbestekotasuna azpimarratzeko tresna politiko gisa baliatu dela salatu zuten.

Hondakinen kudeaketa aldatze



PASA DEN ASTEAN EGINDAKO AGERRALDIAN IZAN ZIREN, BESTEAK BESTE, JUANJO OLAIZOLA ETA IMANOL AZPIROZ USURBILGO ZINEGOTZIAK.

aldera, politikariek alternatibetan sinistu eta bitartekoak jartzeko borondate politikoa falta dela adierazi zuten. Hori dela eta, gai honen inguruan hausnartzera deitzen dute.

Kezka, EBren jarrerarekin

Errauste plantaren bidean Mankomunitateak beste urrats larri bat eman berri duela salatu nahi izan zuten aipatu ordezkariak; Gipuzkoako hondakinen kudeaketa ekonomiko osoa, hautetsi independentisten esanetan, hasiera batean eskumenik ez duten Foru Aldundiaren eta Partzuergoaren esku uztea hain zuzen.

Pasa den aste hasieran, Mankomunitateko batzar nagusiak Partzuergoari 960.000 euroko diru

saila ematea onartu zuen. Diru kanti-tate horrekin, arloko Plan Orokorrean aurreikusten diren azpiegiturak martxan jarri nahi dira. Hautetsi independentistek erabakiaren aurka bozkatu zuten. Alde horretatik, kezkagarritzat jo zuten EB-IUko ordezkarien jarrera. Aipatu erabakiaren haritik, kontraesan larrian sartu direla azpimarratu zuten. "Ezin da errauste plantaren kontra egon eta berau gauzatzeko urratsak eman", adierazi zuen Imanol Azpirozek. Hauteskundeen testuinguruan kokatzen dute aipatu jarrera. Ez dute uste EB-IUko ordezkariak hondakinen kudeaketaren gaian iritiziz aldatu dutenik.

ARITZ GORRITI

Partzuergoaren arabera, udan itxiko da zabortegea

Hila amaitzerako, San Markosera garraiatu beharreko zabor kopurua Lapatx, Sasieta eta Urtetara eramatea eta San Markoskoa uda baino lehen ixtea. Asmo horiek eta bide batez, San Markos Mankomunitatearekin sina-

tutako hitzarmena berretsi zituen pasa den astean Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak. Herrialdeko beste hiru zabortegea-rra hondakinak 2009ra arte garraiatu nahi dituzte. Eta urte horretan bertan, hiru zabortegeak itxi.

Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SA enpresa publikoaren sorreraren berri ere eman zuten pasa den otsailaren 14an. Milioi bat euroko kapital sozialarekin sortua, enpresako administrazio batzordea izendatu berri dute.

Irunen egiten dira konpost makinak

San Markos Mankomunitateak urtarrila hasieran Bartzelona eta Mallorkara antolatu zuen bidaian, zenbait konpost planta ezagutzeko aukera izan zen. Bertan martxan jarri dituzten hainbat konpost makina, Irungo Kollvik enpresan eginak dira. Usurbilen jarri nahi dena ere aipatu enpresakoa dugu.

N. Zeintzuk dira zuen lantegiko ohiko bezeroak?

Abdon Beitia, gerentea. Denetarik dugu. A Coruñan adibidez, arrain-haztegiak instalatuak ditugu. Jatetxeak, merkatal gunek, udalerrriak, oilasko granjak, unibertsitateak, eskolako eta enpresatako jangelak, errepedeetako zerbitzuguneak edota aireportuak ere gure bezeroak dira.

KOLLVIK ETXEKO GERENTEA

“Norberak izan behar du sortzen duen zaborraren erantzule”

N. Goranzko joera izango dute egiten zaizkizuen eskaerek?

A. B. Orain gorantz doaz, merkatal guneetan izugarri, baita zerbitzuguneetan ere. Araztegiatan sortzen den lokatza ere tratatzen da. Hori ere organikoa da eta konpost plantara eramaten da, inausketekin nahastuta. Hain zuzen, konposta egiteko beti karbonoaren (inausketak, kartoiak, paperak...) eta nitrogenoaren (produktu berdeak) nahasketa egokia behar da.



ARGAZKIKOA BEZALAKO KONPOST MAKINAK EKOIZTEN DITU IRUNEN KOKATUTA DAGOEN KOLLVIK ETXEAK.

N. Makina eskaintza anitza duzue?

A. B. Konposta egitea planteatzen den lekuetan, lehenbizi azterketa txiki bat egin behar da, zer konpostatu behar den jakiteko. Makinak, bertara bota beharreko zabor motaren arabera egokitzen ditugu.

N. Konpost prozesu baten arrakastaren giltzarriak zeintzuk dira?

A. B. Horrelako sistema bat jarri nahi duenak, hasieratik kontzientziatua eta motibatua egon behar du. Norberak izan behar du sortzen duen zaborraren erantzule. Zabor gutxiago sortu eta bereizi beharra dago. Norberak ardura hori hartzen duen neurrian, guztiak ondo funtzionatuko du. Birziklatu ezin daitekeen zatia oso txikia da. Horregatik, ahalegina egin beharra dago. Gainera, legedi europarraren arabera, 2002tik zati organikoa

gainerako zaborrarekin ezin da nahastuta bota.

N. Informazio kanpaina ere garrantzitsua izango da ezta?

A. B. Ondo legoke, herritarren artean bilerak egitea, konpost planta martxan jarri baino lehen. Herritarrek laguntza izatea alegia. Guk mota honetako kanpainak eta ikastaroak eskaintzen ditugu.

N. Zer esan konpost plantarekin elkar biziko diren herritarrei?

A. B. Lehenbizi, ingurumena zaintzeko kontzientziatuta egon behar dutela. Ahal den neurrian, aukera izanda konposta norberak egin dezala. Lorezaintzako beste edozein lan bezalako da, eta sarigarria. Bestalde, hondakinak ondo bereizi behar dira, bilketa lanak ondo egiteko. Materia organikoa

teilatuen eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 · ASTEASU
 © 943 69 68 52 · 620 800 186

J. ORBEGOZO

ITURGINTZA · GASA · BEROKUNTZA

BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 · 659602789


konpostatzearen aldeko apustua egitea da gure enpresatik luzatu nahi dugun mezua. Posiblea da. Egunero esperimentatzen dugu. Konpost eder askoa ateratzen da, eszedente gabea. Baserritarrek beti egin izan dute.

N. Argi uzteko: sukaldean prestatutako eta gordina diren hondakin organikoak nahastu litezke konpostarako, inolako arazorik gabe?

A. B. Dena. Gordina eta sukaldean prestatutakoa, guk konprobatu baitugu. Komunikabideetan asko hitz egin da hortaz; kalitateko konposta produktu berde eta freskoekin egiten dela esan izan da. Hori ez da horrela. Kalitateko konposta da, baita sukaldean prestatu-koaren hondakinak botata ere. Zomorroak erakartzen dituztelako esan izan dute hori. Baina gure makineria itxita egonda, ez du inolako zomorririk erakartzen.

N. Zalantzak eragiten dituen beste gai; plantek eragin dezaketen usain txarra?

A. B. Geure makinaren aldeko apus-



GAI ORGANIKOEN KONPOSTATU ARTE IGARTZEN DUTEN PROZESUA.

tua egiten dugu, itxiak baitira eta ez baitute inolako usain txarrik eragiten. Barruan, filtro baten bidez ere usaina depuratzen da. Konpost plantan sortzen den usaina, bertara eramaten den zabor kopuruagatik izaten da. Makinara sartu aurretik, denbora tarte batean zaborra bertan egoten da eta. Horregatik, zen-

bat eta zabor gutxiago garraiatu planta batera, orduan eta usain gutxiago. Hori dela eta, hobeto da konpost prozesu individuala bultzatzea. Konposta ongarrirri bihurtzen da prozesu amaieran, lur usain naturalarekin.

ARITZ GORRITI _____

Bestelako bilketa eta tratamendua

Herri bakoitzeko biztanle kopurua, sortzen duen zabor mota eta kopurua, eta oro har, herriak dituen ezaugarriak kontuan hartu behar dira, bestelako hondakin kudeaketa modu bat martxan jarri baino lehen. Kollvik enpresatik hondakin organikoentzat (hondakinen %43 inguru) tratamendu planta zentralizatu bakar bat jarri ordez, herrian zehar deszentralizatzearen aldeko apustua egiten dute. Hau da, herriko puntu desberdinetan, beti ere udalerriarren ezaugarriak kontuan hartuta, tratamendu gune ezberdinak sortzea proposatzen dute.

Gune indibidualagoak

Famili bakarreko etxe edo baserrietan adibidez, konpostajea bertan egitea egokitzat jotzen dute. Beste hainbeste auzo batzuetan ere. Hartara, ekonomikoki ere zaborra lekuz zenbat eta gutxiago mugitu

orduan eta kostu gutxiago herritarrentzat. Kollvik-eko gerentearen esanetan, planta handietara mugatu ordez, "gune txikiago eta indibidualagoen aldeko apustua egiten dugu. Planta nagusitik ahalik eta zabor kopuru handiena bertatik kentzea proposatzen dugu, planta lokalagoak jarrita".

Kasuan kasuko proposamen ezberdinak egiten dituzte Kollviketik. Kasuan kasuko, alternatiba ezberdinak konbinatu dituzte, horrelako esperientziak martxan jarri diren hainbat herritan.

Kantitate txikiak

Kasuak: lorategiak, baserri txikiak, denda txikiak, laborategiak...

Tratamendua: etxeko konpost makina. Sukaldean hondakin organikoak gainerakoetatik bereizi eta egunero, makinara botatzen ditugu. Eskuiekin ontzia irauli, egunero. Lau asteren

buruan, konposta egina dago.

Kantitate ertainak

Kasuak: hotelak, ikastetxeak, jangelak edo lorategiak dituzten enpresak, jate-txeak, pisuak dituzten etxeak, gasolindegia, nekazaritza-ustiapenak...

Kantitate handia

Kasuak: udalerriak, granja eta baserri handiak, supermerkatuak, hipermerkatuak, elikagai-industriak, hotel-guneak, ur araztegiak...

Tratamendua: konpost plantak:

- Hondakin organikoak gainerakoetatik bereizi.

- Atez ate hondakinak bildu.

- Bildutakoa konpost plantara: bertan, hondakin organikoak xehatu, nahasi eta hartzitzen dira.

- Aste gutxiren buruan, konposta ateratzen da. Ongarri gisa erabiltzeko prest.

Usurbili buruzko DVDa, datorren astetik aurrera jarriko da salgai

Jakinmina eta arreta piztu ditu Nafartarrak kultur taldeak antolatuta, Usurbili buruz eskainitako proiektzioak. Herriari buruzko hainbat pasarte historiko ezagutzeko aukera ematen du, kultur taldeak berak prestatu eta datorren astean salgai jarriko den lanak.

90 bat herritar izan ziren, pasa den otsailaren 15ean Usurbili buruzko DVD proiektzioa Sutegira ikustera hurbildu zirenak. Nafartarrak Kultur Taldeak prestatutako emanaldian argazki zaharrekin barre egin eta Usurbili buruz jakin gabeko zenbait gauza berri ikasteko aukera izan zen. Pozik dira antolatzaileak ekitaldiarekin, nahiz eta haiek dioten bezala, emanaldia gazi-goza izan.

Edizio berri bat egin behar

Goza ekitaldiak izandako harrera eta interesa ikusita. Gazia, emanaldi unean bertan salgai jarri zituzten



NAFARTARRAK KULTUR TALDEKOEK PRESTATUTAKO DVDA LIZARDIN ETA LAUROKEN ERDSI AHAL IZANGO DA, BOST EUROREN TRUKE.

DVDak akatsa zutelako; ordenagailuan soilik ikus daitezke. Azken egunetan, bat baino gehiago hurbildu omen da herriko zenbait saltokitara proiektzioko DVDaz galdezka. Nafartarrak kultur taldetik argitu

ditenez, datorren asterako DVD tirada berria prest izango dute eta zenbait saltokitan jada eskuragarri izango da, bost euroren truke; besteak beste, Lizardi eta Laurok liburu dendatan.

Oso interesgarria izan zen gazteluei buruzko hitzaldia

Dugun altxorraz ez gara jabetzen. Modu horretan laburbildu daiteke, Nafartarrak kultur taldeak antolatuta, gazteluei buruz Iñaki Sagredok eskainitako hitzaldian helarazi zuen mezua. Gazteluen kokapena eta bere garaian izan zuten funtzioa azaldu zuen Sutegin izan zen ekitaldian.

Hain zuzen, gaztelu asko izan ziren garai bateko Nafarroako Erresuman.

Euskal toponimia iristen zen lekuraino zeuden aipatu eraikinak. Gehienak Arabako hegomendebaldean eta Nafarroa Garaian, inbasioetatik gertuen zeuden lurak izateagatik. Gipuzkoan gutxi, baina baziren, Donostian kasu. Horregatik, erakunde-ekidindutako indusketa lanak egin, lurpeko gazteluen aztarnak azaleratu eta gida bat egitea planteatzen zuen Sagredok. Kultur arloan gehiago inbertitzea alegia.



IÑAKI SAGREDO, SUTEGIN ESKAINI ZUEN HITZALDIAN.



Xukin Andoni Errazkin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

© 663 08 76 71 • USURBIL

Zumarte Musika Eskolako 8 ikasle Andoaingo Piano Jaialdian arituko dira

Asteburu honetan, Hirugarren Piano Jaialdia ospatuko da Andoaingo Bastero Kulturgunean. Euskal Herriko Musika Eskoletako 800 piano ikasle baino gehiago arituko dira, horien artean, Zumarte Musika Eskolako 8 ikasle. Larunbatean, goizeko 9:30ean hasiko dira sailkapen saioak.

A mailan (11 urte arte), usurbildar hauek hartu dute parte:

- Medea Cuellar (otsailak 23 larunbata, auditorioan, goizeko 9:30ean).

- Nora Errazkin (otsailak 23 larunbata, ekitaldi aretoan, 9:30ean).

- Aizpea Reveriego (otsailak 23 larunbata, ekitaldi aretoan, 11:00etan).

- Mikel Atxega (otsailak 24 igandea, auditorioan, 12:00etan).

B mailan (14 urte arte), aldiz, Leire Zubigaray (otsailak 23 larunbata, Ekitaldi Aretoan, 18:15ean).

C mailan (18 urte arte), Zumarteko ikasle hauek arituko dira:



IAZ, ANDOAINGO PIANO JAIALDIA SARITUTAKO USURBILDARRAK.

Oihana Razkin (otsailak 24 igandea, ekitaldi aretoan 15:30ean).

Maialen Iñarra (otsailak 24 igandea, auditorioan 16:00etan).

Ainhoa Azpiroz (otsailak 24 igandea, ekitaldi aretoan 17:00etan).

Emanaldi denak, beraz, Andoaingo

Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoan zein auditorioan egingo dira.

Antolatzaileak: Andoaingo Udala, "Seiasle" (Piano Jaialdiak antolatzeko elkarte), Bastero Kulturgunea.

Informazio gehiago: www.andoain.org/pianojaialdia/indexeu.html

Kultur egitasmoetarako dirulaguntza eskaerak egiteko epea ireki da

Kultur egitasmoak antolatzeagatik dirulaguntza eskatu nahi duenak, orain du eskaera egiteko garaia. Astelehen honetan argitaratu dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dirulaguntzak eskatzeko oinarriak. Interesatuak hilabeteko epea izango dute eskaerak aurkezteko, martxoaren 25 arte (egun hau barne).

Usurbilgo Udalak, kultur elkarteek, bestelako kultur erakundeek eta norbanakoek udalerrian egiten dituzten kultur ekimenak bultzatu eta sustatzeko asmoz, dirulaguntza deialdia arautuko duten oinarriak atera ditu 2008. urtean zehar egingo diren jarduerak diruz

laguntzeko.

Eskariak Udaletxeko Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira.

Beharrezko dokumentazioa

Dirulaguntza eskaera egiteko, dokumentazio hau eraman behar da Udalera:

-Dirulaguntza eskari normalizatua (I. Eranskina).

-Ekintzei buruzko fitxak (II. Eranskina).

-Eskatzailearen NANaren fotokopia.

-Identifikazio Fiskalaren Kodearen kopia (edo NANaren kopia, hala badagokio).

-Gizarte Segurantzarekiko betebehartean egunera egotearen eta Ogasuneko

betebeharrak betetzearen agiria (III. Eranskina).

Edozein kasutan, aurreikusitako ekimenari dagokion dokumentazioaz gain, dirulaguntza eskatzaileei behar besteko informazio osagarria eskatu ahal zaie aurkeztutako ekimena behar bezala baloratu ahal izateko.

Informazio gehiago, sarean

Dirulaguntza eskatzeko azken eguna martxoaren 25a izango da, egun hau barne. Informazio gehiago eta dirulaguntza eskatzeko agiriak honako web orrialdean aurkituko dituzue:

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2008/02/18/e0801680.htm>

Mendizale asko Zarautz-Zumaia ibilaldian

Udarregi ikastolako menditaldeak antolatutako azken ibilaldira ume eta guraso asko animatu ziren. Eguraldi ona izan zuten aurreko igandean, eguzkitsua eta haizetsua.

Goizeko 9:00etan trenez Zumaia joan ziren eta bertatik abiatuta kostaldeko bidea jarraituz Getariako eta itsasoko paraje ederrez gozatu ahal izan zuten. Bidean ikusi ahal izan zituzten oraindik historik gabe dauden mahastiak. Oinezkoa Zarautzen bukatu zen eta bertatik trenez bueltatu ziren Usurbila.

Bidean zegoen Arriaundi tumuluan hamaiketako jatera gelditu eta bide batez taldeko argazkia atera zuten.



ARRIAUNDIN ATSEDEN HARTU ETA ARGAZKI HAU ATERA ZUTEN.

Lasarte-Usurbil Institutuko ikasleak Italian izan berri dira



Lasarte-Usurbil Institutuko ikasleak Italian egon dira duela gutxi, Inauteri astean hain zuzen. Lehen Batxilergoko 36 ikasle joan ziren hiru irakaslerekin batera, Florentzia eta Erroma bisitatzerako. Tartean, Usurbilgo hainbat ikasle. Bidaia primeran



joan zen, inolako arazorik gabe, eta datorren ikasturtean ere bidaia errepikatzeko asmoarekin itzuli dira. Argazkietan dituzue ikasleak, Florentziako Paradisuko Atean (ezkerrekoa) eta Erromako koliseoaren kanpoaldean (eskubikoak).

Industri eta iragarri
SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA
 KAMUSETEN IMPRIMAGRIETAKO
PSU
 943 371 954
 UGALDEA POL.36-2-USUREIL

MIKEL
IZAGIRRE
 ELEKTRIZITATEA
 943 365 095
 609 068 111
 GOIZ ARGI ETXEA, 37. KALEZAR

Otar-Goxo
 ELIKUGUIAK
 Zubiaurrena, nº2
 943 36 55 81
 20170 Usurbil

JUANTXO
 BURDINDEGIA
 Zubiaurrena 8
 943 370 008

Bi eski irteera egingo dira martxoan

Baten faltan, bi dira martxoan egingo diren eski irteerak. Andatzakoak martxoaren 1eko asteburuan Pont D'Espagne bisitatzeko asmoa dute. Usurbil Futbol Taldekoek, aldiz, Frantziako Pirinioetako Saint Lary eski estaziora joango dira martxoaren 29ko asteburuan. Bietan, izena emateko aukera zabalik dago oraindik.

Andatza KKE taldekoak datorren astean abiatuko dira Pont S'Espagne delako eski estaziora. "Ipar eskia" egitera abiatuko dira eta izena emateko epea irekita dago oraindik. Beraz, martxoaren 1eko asteburuan eskiatzera joan nahi duenak, izena eman dezala Txiribogan edo Bentan jarri diren zerrendetan. 30 euro ordaindu eta listo.

Martxoaren 29ko asteburuan, Saint Lary eski estaziora

Martxoaren bukaeran beste eski irteera bat egingo da. Baina hori Usurbil Futbol Taldekoek antolatu dute eta Frantziako Saint Lary eski estaziora joango dira. Irteera honetan parte hartzeko, gutxienez 16 urte izan behar dira. Martxoaren 29an larunbata, goizean irtengo da autobusa eta igande arratsalde-gauean bueltatuko da. Prezioak honakoak izango dira:

16-17 urtekoentzat: 113 euro (forfaita, albergea, pistetako aseguruua eta autobusa). 6 euro gehiago, eski materiala aloka-



SAINT LARY ESKI ESTAZIORAKO BIDAIA MARTXOAREN 29AN EGINGO DA.

tzeko; eta 14 euro gehiago, snow materiala alokatzeko.

18 urte edo gehiago: 134 euro (forfaita, albergea, pistetako aseguruua eta autobusa). 6 euro gehiago, eski materiala alokatzeko; eta 14 euro gehiago, snow materiala alokatzeko.

Plaza kopuru mugatua

Saint Laryra joateko inskripzioa martxoaren 5ean amaituko da. Horretarako, ordainketa egin Kutxako kontu zenbaki honetan 2101 0069 17 0123588840 eta ondoren e-mail bat bidali behar da helbide honetara: zubiharitzo@hotmail.com

Izen-abizenak, DNI zenbakia eta materiala alokatu behar baduzue hanka zenbakia adierazi. Plaza kopurua mugatua da: 48.

Aldez aurretik norbaitek erreserba egin nahi badu aipatutako kontuan 50 euroko ordainketa egin dezake eta e-maila bidali.

Datu gehiago: 653 728 059 (Haritz).

Amador Granado, Euskadiko Sei Orduetan

Larunbat honetan, hilak 23, Euskadiko Sei Orduak jokatuko dira. Iaz bezala, Amador Granado izango da partehartzaileen artean. Arratsaldeko 17:25ean, ezinduentzako keirin abiadurako lasterketan arituko da.

Euskadiko Sei Orduak, hala ere, arratsaldeko 15:00etan hasiko dira. Donostiako Belodromora hurbiltzen denak, gainera, Egaña eta Lizasoren bertsoak entzun ahal izango ditu, Incansablesen doinuak eta Oreka Tx eta Gosereren kontzertuak. Herri kirolek ere tarte berezia izango dute.

Haimar Zubeldia, hirugarren Mallorcan

Philippe Gilbert frantziarrak (Francaise des Jeux) irabazi zuen lehengo astean Mallorcako Itzulua. Haimar Zubeldia (Euskaltel-Euskadi) hirugarren postuan geratu zen sailkapen nagusian, irabazlearengandik hiru segundora.

Eskubaloi taldeak, aurreko asteko emaitzak

1. Territoriala	Urnietako 28-Usurbil KE 31
1. Territoriala	Usurbil KE 31-Hegialde 22
2. Territoriala	Irun 23-Usurbil KE16
Junior mut.	Usurbil KE 32- Rotulos 38
Kadete mut.	Leizaran 24-Usurbil KE 28
Junior nesk.	Aloña Mendi 21-Usurbil KE 21
Kadete nesk.	Urdaibai 29-Usurbil KE 18
Kadete nesk.	Elgoibar 25-Usurbil KE 24

Eskiatzera joateko bi aukera

Martxoak 1-2

NORA: Pont S'Espagne (Frantzia)
ANTOLATZAILEA: Andatza KKE
IZEN-EMATEA: Txiriboga eta Benta tabernetan jarri diren zerrendetan

Martxoak 29-30

NORA: Saint Lary (Frantzia)
ANTOLATZAILEA: Usurbil FT
INFORMAZIOA: 653 728 059
PLAZA KOPURU MUGATUA: 48

Kale Nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

CLIMATA-T

klimatizazio orokorra

☎ 687 858 390
climata_t@yahoo.es

ALIPROX

Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

ETXEBIZITZA

- Usurbilen 3 logelatako etxebizitza alokatzen dut. Abala eskatzen da. 943373481.
- Terrenoa duen borda bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 664774024
- Terrenoa daukan baserri bat erosiko nuke. 664774024
- 75.000 metro karratuko terrenoa daukan baserri bat daukat salgai. Argi indarra telefonoa eta ura ditu. Agroturismo bat jartzeko oso egokia. 664774024.
- San Esteban kaleko 13 zenbakian 4. solairuko etxe bat daukat alokatzeko. Ez dauka igogailurik. Kontakutuan jartzeko: 943362088
- Etxe bat alokatuko nuke norbaitekin Usurbilen, 639370633 (Bixen).
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Pisua salgai Atxegalden. 4 logela, bi komun, sukaldea, egongela eta trasteroa. Berritua. 53.000.000 pezeta. 696 693 710.
- Gela bat alokatzen zaio gizonezko langile bati. 250 euro/hilabeteen, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin eta arropen garbiketara barne. 687348223.
- Etxebizitza salgai. 86m karratu erabilgarriak + 13m karratu balkoi(eguzkitsua), 3 logela, bainua, komuna, kalefazioa, trasteroa eta igogailua. 318.000 euro. Tf: 688670561.
- Apartamentu-duplex rustikoa saltzen du partikularrak. Zubietan Elizaren ondoan dago eta etxebizitza sartzeko moduan dago. 245.000 euro. 678084020.
- Hiru logelatako etxe baten bila gabiltza Usurbilen. Agentziarik ez. 616064059.
- Etxea salgai Kale Nagusian. 90 m. Igogailua, garajea, trasteroa. 943361383.
- Pisua salgai. Santuenean, 16 zbkia 4. pisua, 33 milioitan (negoziagarria). 667802888.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- 3 logeletako etxe bat salgai, kaxkoan. Igogailua, ganbara eta balkoiduna. 655 72 06 66.
- Pisua alokatuko nuke Usurbilen. 661 702 708.
- Salgai. Kaxkoan, 3 logelako etxea trasteroarekin. Garajea aukeran. 685731792
- Bi gela edo gela bateko apartamentu baten bila nabil. 687 650 066 (Maria).

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Usurbilen 33 metro karratutako garaje bat alokatzen dut. Sarrera handiarekin, biltegi moduan

- erabiltzeko egokia izan daiteke. Ura eta argia dauzka. 943373481.
- Kale Nagusian garaje itxi bat alokatzen dugu. Kotxeak sartzeko egokia, lokal moduan ez dugu alokatzen. 85 euro hilabeteen. Interesatuak deitu 943361235 telefonora.
- Volswagen Transporter Shuttle 2.5 TDI, 130 zaldikoa salgai. 2005eko abuztukoa. Gris ilun kolorekoa. Lo egiteko prestatua, gortinak, toldoa eta hozkailua... 687571009.
- Volswagen California bat daukagu salgai. 92. urtekoa, 2400eko motorra, konpondu berria... 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
- Land Rover 4.6 (lp) todoterrenoa salgai. 8 urte. 455.000 km. Extra asko. Ruben. 609408401.
- Hiru ateko Honda Civic salgai. Beti garajean egondakoa. 620625823.
- Mercedes Vito Mixta 112 CDI bat saltzen dut. Aire egokitua, kristal tintatuak, bigarren bateria, berogailu autonomoa... Dena hornitua, 610 431 999.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.

LANPOSTUAK

Lan-eskaintzak

- Astean 3 edo 4 egunez eta egunean 3 orduz (goizez ahal bada) pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume euskaldun baten bila gabiltza. Ordu egian flexibilitatea izatea eta auto propioa izatea baloratuko da. 607233255 / 616273785.
- Neska euskaldun (ahal bada) baten bila gabiltza ume bat zaintzeko astean bi goizetan eta zenbait arratsaldetan. 635715142.
- LH edota DBHko ikasleei klase partikularrak emateko prest egongo al zinateke? Udarregi ikastolan, lan hori betekin luketen pertsonekin zerrenda bat osatzen ari gara. Interesatuak pasa Ikastolatik.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tardeka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. 627278907.
- Urte osoz, astebukaeratan lan egiteko zerbitzari baten bila gabiltza. 943366710.

Lan-eskaerak

- Etxekolanak egiteko, umeak edo pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. Esperientziaduna, informeak dauzka. Interesatuak deitu 943834895 / 650814429
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 636934237.
- Etxeko lanak egiteko emakumea eskaintzen

da. Goizez edo arratsalde lan egiteko prest. Deitu: 679 79 61 01.

- Pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 675 657 780.
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko. 630274906
- Emakume bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko. Telefono zenbakia: 676221378.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporrak, ospakizunak, edozein motatako bide-ak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. Telefono zenbakia: 943555835/ 617 242 660.
- Etxeko lanak egin, pertsona helduak zaindu edo jateke batean lan egiteko prest nago. 610 669 335.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zein pertsona helduak zaintzeko. 618434990.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 620 646 769.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Erregeek telebista modernoa ekarri badizue eta zaharra botatzeko asmorik badaukazu, neurekin kontaktuan jarri: bila joango nintzake: 675 71 72 67. Diru pixka bat ordaintzeko prest nago ere.
- Naranja eta gorri koloreko bi raketa galdu ditugu; bat handia, bestea txikia. Aurkitu baduzu, deitu: 692 837 951.
- Abenduaren 4an giltzak galdu nituen giltzatak beltz batekin. Aurkitu badituzu eskertuko dugu deitzea: 685 72 56 81.
- Usurbilgo gazte kuadrila bat gara eta lokal bat alokatu nahi genuke herrian. 943360744.
- Kotxeko aulkitxo salgai. Maxi Cosi Priori XP. 110 euro, erdi prezioan. 652 764 620.
- Egurrezko aulkial salgai. Aritz egurrez eginkoak. 943 36 20 49.
- Lur zatitxo bat hartuko nuke, baratz txiki bat osatzeko. 615744076.
- Bigarren eskuko trikiritxa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Snow egiteko tabla bat fijazioekin salgai. Tf: 679 185 102.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



Zorionak Markel!

Otsailaren 25ean egingo duzu zure lehen urtebetetzea. Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partez.



Zorionak Imanol!

Otsailaren 23an zure urtebetetze eguna izango da. Zorionak etxeko guztien partez!

Oharra: Jaiotzak, Usurbilgo Bake Epaitetik jasotako datuak. Merkatu Txikirako mezuak, zorion agurrak, hildakoen edota jaioberrien aipamenak orri honetan ikusi nahi badituzu, honako telefono zenbakira deitu bulego orduetan: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com

JAIOTZAK

Nora Etxeberria Matxain
Otsailaren 3an jaio zen.

Eire Arrizabalaga Pikabea
Otsailaren 5ean jaio zen.

Iban Olasagasti Britt
Otsailaren 6an jaio zen.

Haritz Vidal Arruti
Otsailaren 8an jaio zen.

Ekhine Alberdi Iparragirre
Otsailaren 9an jaio zen.

Agenda !

Otsailak 22 ostirala

- IT txartela eskuratzeko azterketa KzGunean. 9:00etatik 11:00etara. 943 36 14 12.

Otsailak 26 asteartea

- "Mugarik gabeko hirian" filma eta oroimena galtzeari buruzko hitzaldia Amaia Zulaikaren eskutik. Gazteleraz, arratsaldeko 16:00etan Sutegin.

Otsailak 27 asteazkena

- Kultura Aholku Batzordearen bilera. 19:00etan udaletxean.

Otsailak 29 ostirala

- "Loreak mendian, hondakinak lurpean eta bideak gainean", antzerki saioa Sutegin. 22:30ean. Antolatzailea: Nafartarrak Kultur Taldea. Sarrera: takilan, 5 euro.

Eguneko goardiako farmaziak

Otsailak 21, osteguna

Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Otsailak 22, ostirala

Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Otsailak 23, larunbata

Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*

Otsailak 24, igandea

Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Otsailak 25, astelehena

Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Otsailak 26, asteartea

De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Otsailak 27, asteazkena

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Otsailak 28, osteguna

Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Otsailak 29, ostirala

Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Martxoak 1, larunbata

De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil*

Martxoak 2, igandea

De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

Correa Farmazia (22:00-09:00),
Perkaiztegi kalea, 8 Hernani 943 33 60 22
*Usurbilen, soilik eguerdina arte

Larunbat honetan, errausketaren aurkako bertso-afaria Araetan

Zubietako Araeta jatetxean, Zerrausketaren aurkako bertso-afaria egingo da larunbat honetan, hilak 23. 20:30ean hasiko den ekitaldian, Andoni Egaña eta Amets Arzallus bertsolariek hartuko dute parte.

Aurretik, hiri hondakinaren tratamenduari buruzko hitzaldia izango

da 19:00etan, Zubietako lokalean.

Bertso afarirako txartelak salgai dira 30 eurotan (12 urtera arteko haurrek 15 eurotan). Txiribogan, Bentan, Ardi Beltzen eta Barazarren eskura daitezke txartel horiek.

Zubieta Lantzen taldeak antolatu ditu bai hitzaldia eta baita bertso-afaria ere.



ANDONI EGAÑA ETA AMETS ARZALLUS ARITUKO DIRA ZUBIETAN KANTARI.

Datorren astean, Kultura Aholku Batzordearen bilera udaletxean

Urtarrilaren 30ean bildu zen lehen aldiz Kultura Aholku Batzordea. Ekimen honen bitartez, udaletxearen eta elkartearen arteko komunikazioa sustatu nahi da. Hala nola, kultur taldeen partaidetza eta koordinazioa bultzatzea du helburu.

Aurrerantzean, hilean behin bilduko da Kultura Aholku Batzordea, hilabeteko azken asteazkenean. Beraz, otsailaren 27an egingo da batzorde honen bigarren bilera.



OTSAILAREN 27AN
ASTEAZKENA, ARRATSALDEKO
19:00ETAN HASIKO DA BILERA.

Martxoaren 1ean, 1979ko kinto bazkaria

1979an jaio zirenak sagardotegian biltzeko asmoa dute. Martxoaren 1ean egingo da bilkura, Saizarrenean. Eguerdiko 14:00etan hasiko da bazkaria.

Izena emateko aukera dago Txiriboga tabernan. Datorren astean, otsailaren 28an amaituko da izena emateko epea. Beraz, ez utzi azken ordurako.



Ogi beltza baino beltzago, ogiaren eza

Ogiak aldaketak jasan ditu historian zehar baina beti egon da gure mahaian. Ogi zuria industrializazioarekin iritsi zen, txikitutako irina biltegian gordezen zutenean segituan hondatzen zen, baina germena eta azala kentzen bazitzaion ez zen horrelakorik

gertatzen. Ogi zuriak, ogi integralak baino mantengai gutxiago ditu. Benetako ogi integrala bere germen eta azal eta guzti egiten da eta ama legamiarekin fermentatzen da. Zaporeak bereizten du eta tesura trinkoagoa du.

Urtebetean zerealaren prezioak %60 egin du gora. Horrek, haragia, esnea eta ogia bezalako oinarrizko elikagaien prezioen igoera eragin du, pentsua-ren prezioa ere garestitu egin baita. Prezio igoera horiek nahikoa ekoizten ez delako gertatu dira. Baina ez jateko nahikoa ekoizten ez delako, bioerregaiak egiteko nahikoa ekoizten ez delako baizik. Ogiaren prezioa igo arren gure elikaduran beharrezkoa den elikagaia da.

Honen harira karbohidratoek (ogiak, oreak, patatak, arrozak, lekalek... hamaikatxo elikagaik dituzte elementuok) gizendu egiten gaituztela eta nutrizio alorretik baliorik ez dutela sinestearren, eskas kontsumitzen ditugu. Elikagai horiek zeinahi dieta orekatutan funtsezkoak dira eta ia-ia eguneko otordu guztietan kontsumitu behar ditugu. Irin, ur eta gatzaz (ez beti, gatzik gabea ere badago eta) bakarrik osatua, ogiak dituen osagaie-tatik bakar batek ere ez du zerikusirik "mendebaldeko patologiak" (obesitate, diabetesa, gaitz kardiobaskularrak, etab.) nozitzeko arriskua larritzearekin.

Ogia iturri energetikoa

Ogiak ugarien duen osagaia almidoia da. Karbohidrato konplexu honek organismoak behar bezala funtzionatu eta garatzeko premiazkoa duen energiak hornitzen du. Karbohidratoaz behar bezainbeste hornitzeak gorputzaren osaketa eta pisua mantentzea ondorioztatuko du.

Beste mantengai energetikoa gantza da: ogiak oso gantz gutxi dauka (%1), moldeko ogiak, xigortuak eta horrelako bariatate komertzialek izan ezik.

Ogi gutxi kontsumitzeak dietaren



OKINDEGIEK JARRI DITUZTE JADANIK NOTATXOAK OGIEN IZENEKIN.

baitan desoreka latzak eragin ditzake, horregatik eta gauza guztiekin bezala ogia ere tamainan jabez gero osasun-garria da eta beharrezkoa.

Ogiaren onurak

Kontutan hartzekoak dira ogiak dituen elementu onuragarriak. Batetik proteinak, labore-aleak dituen landare-proteinez hornitzen gaitu ogiak. Gari irinak eta, beraz, ogiak ugari du gluten izeneko proteina, honi esker irin horrekin ogi jangarria molda daiteke. Nutrizio ikuspegitik, proteina horien balioa arrain, haragi edo arrautzaren parekotzat jo daiteke, ogia beste elikagai batekin hartzen badugu (leka-leak edo animalia elikagaiak), hala nola: esne-zopak, gazta ogitartekoa, garbantzuak arrozarekin, etab.

Bestetik bitamina eta mineralak B multzoko bitamina (tiamina edo B1, riboflabina edo B2, piridoxina edo B6 eta niarina, den-denak premiazkoak, karbohidrato, proteina eta gantzak aprobeatzeko, besteak beste) eta mineral (fosforoa magnesio, potasio, etab.) askotxo ditu ogiak.

Azkenik zuntza, ogi integrala eta labore anitzekoa dira zuntz gehien daukatenak.

Buruntzaldeko kanpaina martxan

"Eska ezazu ogia euskaraz" kanpaina honetan Buruntzaldeko okindegi gehienak parte hartzen dute Andoaingoak ezik. Andoaingo Udalak emandako azalpena ondorengoa da "Andoaingo Udalak ez du egitasmo hau ikasturte honetan martxan jarriko. Euskara Zerbitzuaren hainbat gorabehera direla medio, ezin izan dio ekimen honi eutsi. Hala ere, bi urte barru-edo sektore komertzial honetan eragiteko asmoa adierazi du Andoaingo Udalak. Nolanahi ere, aurtengoan sortutako materiala herriko ikastetxe eta euskaltegian banatuko du Udalak material didaktiko gisa erabil dezaten".

Kanpaina zehar oihalezko poltsak banatu dituzte ogia bertan sartzeko. Poltsa hauek Agenda 21 programa kontutan izanda egin dira, kotoia eta tinta ekologikoa erabiliz eta poltsan ogi ezberdinen izenak azaltzen dira bere irudiarekin batera. Okindegietan ogi bakoitzari jartzeko banatu diren kartel-txoak eta ogi ezberdinen izenak jasotzen dituen kartel handia ere paper erreziklatuaz egin dira, beraz guzti hauek egiterakoan ingurugiroa kontutan hartu da.

eska ezazu ogia euskaraz



moldeko ogi zerealduna



ogi-barra zerealduna



ogi espainola



ogi-irina



baguettea



baserriko ogia



ogi integral haziduna



fruitu lehorrezko ogia



moldeko ogi integrala



moldeko ogia



ogi birindua



ogi txilgortua



opilak



erromatar talkia



ogi sesamoduna



ogi sojaduna



txapata



Vienako ogia



zekale-ogia



zopakoa



barra kuxera



barra talkia



flauta



Nolako irina, halako ogia



Norberak ogia egiteko hemen duzue errezeta bat, pazientzia pixkat izan beharko duzue, denbora eskatzen du eta. On egin dizuela!

Osagaiak:

750g. irin; 30g. legami; kutxaraka erdi gatz; 400ml. ur epel; azukrea aukeran

Prestakuntza:

Hondoa duen ontzi batean irina eta gatza tamizatu, azukrea erabiltzea erabaki baduzu legamiarekin nahastu eta ondoren ur epelarekin nahastu eta irinari gehitu. Guzti hau ondo nahastu ore irmo eta itsaskor

bat lortu arte. orduan orea landu behar duzun superfinzia irinaz bete eta orea gainean jarri, oratu elastikoa eta distiratsua-bihurtu arte. Orea bere puntuan dagoenean bola bat egin eta berriro ontzian utzi, film transparente batekin estali eta bere horretan utzi, ordubete edo 2 orduz bere boluena bikoiztu arte.

Orea bere puntuan dagoela jakiteko behatza sartu eta hatz marka gelditzen bada prest dago. Gero berriro oratu eta beste bola bat egin ondoren trapu bat jarri gainean eta 15 minutu gehiagoz utzi bere horretan. Honen ondoren berriro ere bola bat egin eta trapuarekin estali,

fermentatzen utzi bere boluena bikoiztu arte (ordubete gutxi gora behera) eta orain prest dago labean sartzeko. Nahi duzuz forma emalazu eta goikaldean ebakitxo batzuk egizkiotu. Aurretik labean 220 gradutan jarri eta hezetasuna emateko urez betetako ontzi bat sartu, ogia sartu eta 20 minutu ondoren ura atera eta 15 minutu gehiagoz labean utzi. Orduan temperatua 190 gradutara jaitsi eta bere horretan mantendu bukatu arte.



ASTIGARRA DAKO OKINDEGIAK

1. Barrenetxe	Kale Nagusia 40	943 55 78 49
2. Labeak	Tomas Alba	943 55 78 97
3. Ogi berri	Kale Nagusia 29	943 55 41 04
4. Ogi berri	Kale Nagusia 5	943 33 67 90
5. Valella	Kale Nagusia 27	943 33 24 10

LASARTEDIANO OKINDEGIAK

6. Aburuza	Kale Nagusia 45	943 36 24 52
7. Arsuaga	Oztaran plaza 01	943 36 17 05
8. Aurora, Buenos Aires	Larrekoetxe bidea 07 (Zabaleta)	943 37 09 37
9. Barrenetxe	Geitoki 17	943 36 12 66
10. Bilcain	Zumaburu 03	943 37 21 83
11. Bilcain	Jaizkibel Plaza 03	943 37 22 54
12. Bilcain okindegia	Urko Plaza 02, behe	630 83 91 81
13. Calero Gozo-denda	Zumaburu 07	943 36 69 86 / 639 903 301
14. Dendaberri	Zirkuito ibilbidea 15	943 36 64 39
15. Eguzli-lore	Golf plaza 06	943 36 18 30
16. Elcain okindegia	Kale nagusia 46	943 36 28 08
17. Labe-goxo okindegia	Jaizkibel 08	943 37 12 01
18. Gozogi	Geitoki kalea 06	943 37 08 48 / 650 411 342
19. Lasarte gozotegi-txokolategia	Bilas de Lezo 03	943 37 20 79
20. Ogi-berri	Pablo Mutiozabal kalea 03	943 36 41 21
21. Opil goxo Yania	Kale nagusia 28	943 37 06 55
22. San Miguel okindegia	Ola kalea 04	943 36 10 95

HERNANDEO OKINDEGIAK

23. Antziola okindegia	Antziola auzoa, 3	943 55 17 91
24. Antziola okindegia	Montebideo, 3	943 33 20 13
25. Arstimuño okindegia	Kardaberaz, 10	943 55 27 85
26. Bilcain okindegia	Elkano, 12	943 55 31 42
27. Bilcain okindegia	Orkolaga 19	943 33 14 87
28. Dorronoro okindegia	Lizeaga, 4	943 33 42 67
29. Elcain okindegia	Latsunbeberri auzoa, 12	943 55 36 54
30. Esnal okindegia	Izpiua, 7	943 55 14 83
31. Gallur okindegia	Latsunbeberri auzoa, 36	943 33 30 02
32. Gari Gain okindegia	Bidebieta plaza, 2	943 33 16 70
33. Goltoketxe okindegia	Karmelo Labaka, 4	943 55 19 96

34. Inaxi okindegia	Urbietza, 16	943 55 34 66
35. Irrigoenea okindegia	Lizeaga, 1	943 33 17 25
36. Labeak okindegia	Latsunbeberri auzoa, 37	943 33 33 69
37. Latsunbe okindegia	Latsunbeberri auzoa, 6	943 33 21 78
38. Lautximeneta okindegia	Perlaiztegi, 4	943 33 42 52
39. Otegi okindegia	Gudarien plaza, 4	943 55 76 18
40. Peña okindegia	Kale Nagusia 19	943 55 23 98
41. Zabala okindegia	Kale Nagusia, 43	943 55 24 31

USURBILGO OKINDEGIAK

42. Aizpurua	Kale Nagusia 35	943 36 12 20
43. Aliprox-usurbil	Kale Nagusia 10	943 36 11 82
44. Alkorta autozerbitzuak	Beko kalea 4	943 36 57 42
45. Artzabal supermerkatua (Dia)	Puntapax kalea 3 behe	943 36 59 59
46. Berexi kutxik (Urbil)	Asteasuain Poligonoa 45	943 36 76 08
47. Coviran	Aginaga 8	943 36 12 06
48. Imanol Txapartegi harategia	Eluta kalea 7	943 36 19 07
49. Koro Eснаоla	Santuena 38	943 36 10 50
50. Labe-goxo	Kale Nagusia 2	943 37 33 48
51. Laukote (Artzabal)	Puntapax 16 behe	943 36 09 80
52. Ogiko okindegia (Urbil)	Asteasuain Poligonoa 48 A	943 36 76 08
53. Otan-goxo	Zubiaurrenea 2, behe	943 36 55 81
54. Ugari Arrillaga	Irazu 16	943 36 22 36

URBETAKO OKINDEGIAK

61. Aliprox	Herreros kalea 2	943 33 22 53
63. Comestibles Juani	Idiazabal kalea 10	943 00 91 72
64. Eko-Tolosa	Arantzubi kalea 2	943 33 15 47
65. Gaztelo gozotegia	Errekaldea kalea 14	943 00 84 06
58. Itxaspe	Zelai-Aide plaza 4	943 00 94 27
56. Labetxo okindegia	Idiazabal kalea 15	943 33 11 64
59. Maiz	Idiazabal kalea 18	943 33 67 18
62. Mujika autozerbitzua	San Juan kalea 27	943 00 95 93
57. Ogi Berri	Idiazabal kalea 19	943 00 92 81
60. Super BM	Etxeberri plaza 1-3	943 55 40 77
66. Urnieta Fruta-denda	Idiazabal kalea 20	605 70 15 56
65. Urnieta okindegia	San Juan kalea 18	943 00 90 67

TXOTX!!

Txotxetik sagardoa jarraitu usatzea!



Tel.: 943 365 031
Mugikorra: 670 027 731

Santuenea

LARRE-GAIN

DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarriletik apirilera
TXOTX-GARAIA
Ostiral, larunbat eta ingande
eguerdian IREKITA
Asteleheneran ITXITA

Larre-Gain Baseria **Ereñotzu - Hernani**
Tel.: 943 55 58 46 Mugik.: 616 287 867



SAIZAR

Betiko Sagardoa

Kalezar Auzoa, 39 • USURBIL • Tel. 943 362 228
www.sidrassaizar.com

ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81

ERRETEGIA • NEKAZALTURISMOA

ARRATZAIN

DOLARE-SAGARDOTEGIA

Egunero irekia.



info@agroturismoarratzain.com
Arratzainzar Baseria • Telf: 943 36 66 63

☎ 943 36 12 29

iruvin

sagardotegia



Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritzeta bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com

Aginaga

Sagardotegia

Urte osoan txotxetik



ESTRATA kalea, 7
Aginaga auzoa, USURBIL
Tel. eta Faxa: 943 36 67 10
Tel.: 943 37 06 68
a.sagardotegia@aginagasagardotegia.com